



Ikasgaiaren programa

# ARTEAREN HISTORIA

## 0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

*Dokumentu honetan Fisika ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:*

- 1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK.*
- 2. Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
- 3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.*
- 4. Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
- 5. Ikaslearen nota eraikitzeko KALIFIKAZIO SISTEMA; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

*Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.*

*Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea, kritikotasunez eta autonomiaz jokatzeta**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.*

*Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.*

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

**H1.** Historian zehar, artea zer den adierazteko izan diren moduak eta horien arteko diferentziak identifikatu, ulertzea eta balioestea, artearen gizarte-funtzioen bilakaeraz eta egindako ekarpenez jabetzeko, arte-lan eta artista jakin batzuei erreparatuta munduko kulturei eta historia-aroari erreferentziak eginez.

**H2.** Arte lanen iruzkinak egitea, garai, kultura edo mugimendu baten testigantza gisa balioetsiz, eta, arte-estiloen formen, gaien eta funtzio nagusiak azalduz terminologia eta kontzeptu egokiak erabiliz. Artelanez osagai historiko-kulturala eta osagai estetiko-formala dutela ulertuz, hauen atzean dauden aro eta mugimenduak ezagutzeko.

**H3.** Mendebaldeko arte-estilo nagusietako artista eta arte-adierazpen nabarmenenak ezagutu, bereizi eta aztertzea (berariaz aipatuko da Euskal Herrian eta Espainian ekoiztutako artea), eta behar bezala kokatzea denboran, espazioan eta testuinguru historikoan, aldaketak eta jarraitutasunak ikusteko eta talde-ondareko elementu gisa balioetsiz.

**H4.** Gure ondare artistikoa ezagutu, hartaz gozatu eta balioestea, zeregin horretan museo eta erakundeek duten zeregina kritikotasunez aitortuz, legatu horren zaintzaren garrantziaz jabetzeko.

**H5.** Gizarteari buruz norberak dituen ideiak eztabaidatzea eta kritikoki aztertzea, iritzi propioa eraiki eta defendatzeko, informazio berria kontuan hartuz, estereotipo eta aurreiritziak zuzenduz eta azterketa historikoa etengabe berregiten den prozesu gisa ulertuz.

## 2. IKASGAIAREN EDUKIAK

**1.0. SARRERA:** Artea, definizioa eta oinarritzko ezagutzak. // Artea, giza adierazpena denboran eta espazioan // Artelana ulertzeko eta aztertzeke modua.

**1.1. ARTE KLASIKOA:** Arte klasikoak: Grezia eta Erroma; haien eragin historikoa. Artea Hispania erromatarrean

- **Grezia:** Testuingurua eta bilakaera kronologikoa. // Greziako arkitektura. Arkitektura-ordenak. Eraikin nagusiak (tenpluak eta teatroak). Santutegia. // Greziako eskultura. Ezaugarri orokorrak eta bilakaera (aro arkaikoa, klasikoa eta helenistikoa).
- **Erroma:** Testuingurua eta bilakaera kronologikoa. // Erromako arkitektura. Ezaugarri orokorrak, materialak, ordenak eta arkitektura-elementu nagusiak. Arkitektura zibila (teatroak, anfiteatroak, zirkuak, termak, merkatuak, basilikak eta etxebizitzak) eta arkitektura erlijiosoa (tenpluak). Hirigintza eta ingeniarietza-lanak. // Erromako eskultura. Erliebea eta erretratua. // Pintura. Oinarritzko ezaugarriak. Bilakaera. // Artea Hispania erromatarrean.

**2.1. ERDI AROKO ARTE KRISTAUA:** Ikonografiaren eraketa. Erromanikoa eta gotikoa. Erromanikoa Donejakue bidean.

- **Arte paleokristaua.** Kristautasunak arkitekturari eta ikonografiari egindako ekarpena.
- **Arte erromanikoa:** o Testuingurua eta estiloa Europa Mendebaldetik zabaltzen lagundu zuten faktoreak. // Donejakue Bidea, harreman kultural eta artistikorako bidea. // Arkitektura erromanikoa eta estiloko eraikuntza-elementuak. Pelegrinazioko elizak eta monasterioak. Arkitektura erromanikoaren zabalkundea erreinu hispanikoetan. // Eskultura erromanikoa. Ezaugarri orokorrak. Monumentu-eskulturen berreskurapena eta portada erromanikoa. Eskultura erromanikoa erreinu hispanikoetan. // Arkitektura eta eskultura erromanikoa Euskal Herrian. // Pintura erromanikoa. Oinarrizko ezaugarriak eta teknikak.
- **Arte gotikoa:** Testuingurua: gizarte urbano berrirako bidea. // Arkitektura gotikoa eta estiloko eraikuntza-elementuak. Katedrala, hirien harrotasuna eta arteen bateratze-lana: monumentu-izaerako arkitektura eta eskultura. Beirate gotikoa. // Espainiako katedral gotikoak. // Pintura gotikoa eta bere bilakaera. Trecentoko pintura eta Flandriako pintura XV. mendean, pintura modernoaren sorburu. // Gotikoa Euskal Herrian.
- **Arte hispaniar-islamdarra.** Testuingurua. Ezaugarri orokorrak.

## 2.2. ARTE EUROPARRERAN GARAPENA MUNDU MODERNOAN:

- **ERRENZIMENDUA ETA TRADIZIO KLASIKOAREN BERPIZTEA** // Testuingurua. Italia gune artistiko nagusia. QUATTROCENTOA. Testuingurua. // XV. mendeko arkitektura italiarra: Ordena klasikoen itzulera eta hizkuntza formal berria. // Eskultura. // Pintura. // Mezenak eta artistak. // CINQUECENTOA: Errenazimentu garaia eta manierismoa. Testuingurua. // Arkitektura eta hirigintza. // Eskultura. Pintura. // Errenazimentua Espainian. // Errenazimentua Euskal Herrian.
- **BARROKOA:** Barrokoaren kontzeptua. Testuingurua eta ezaugarri orokorrak. Sorrera gunea Italian eta aldaera europarrak. // Arkitektura eta hirigintza. // Eskultura barrokoa. Ezaugarri orokorrak eta ikuspegiak. // Pintura barrokoa. Ezaugarri orokorrak eta tendentziak. // Barroko hispanikoa: hirigintza eta arkitektura. Iruditeria barrokoa. Pintura espainiarraren ekarpena: urrezko mendeko artista handiak. // Barrokoa Euskal Herrian. // XVIII. mendea. Barrokoaren iraupena. Rokokoaren finezia.

## 3.1. ARTE GARAIKIDEAN izan diren aldaketak eta bere horretan iraun duten ezaugarriak.

- XIX. mendea: artea eraldatzen ari den munduan. // Neoklasizismoa: Kontzeptua eta testuingurua. // Arkitektura neoklasikoa. Ezaugarri orokorrak. // Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian. // Eskultura neoklasikoa. // Pintura neoklasikoa. // Erromantizismoa: Kontzeptua eta testuingurua. // Pintura erromantikoa. // Errealismoa: Kontzeptua eta testuingurua. // Pintura errealista. // Goya.
- Industria Iraultza eta material berriek arkitekturari izandako eragina. Historizismotik modernismora. Chicagoko eskola. // Hirietako zabalguneeetatik arkitektura-tendentzia berrietara. // Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian. // Hirigintza modernoaren sorrera.
- Pinturaren bilakaera: inpresionismoa, sinbolismoa eta postimpresionistak, pinturaren abangoardiaren hazia.
- Eskultura: klasizismoaren iraupena. Rodin.
- Arte XX. mendeko lehen erdialdean: Abangoardiak arte plastikoetan: fauvismoa, kubismoa, // futurismoa, espresionismoa, pintura abstraktua, dadaismoa eta surrealismoa. // Arkitektura-hizkuntzaren berrikuntza: mugimendu modernoaren funtzionalismoa eta arkitektura organikoa.
- Artearen unibertsalizazioa XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera: // Mugimendu modernoaren edo nazioarteko estiloaren gailentasuna arkitekturari. Arkitektura nazioarteko estilotik kanpo: High Tech, arkitektura postmodernoa, dekonstrukzioa. // Arte plastikoak: bigarren abangoardietatik postmodernitateara. // Sistema bisual berriak: argazkigintza, zinema eta telebista, kartelak, komikia. // Hizkuntza espresiboen konbinazioa. // Euskal arkitektura, pintura eta eskultura XIX., XX. eta XXI. mendean.

### 3.2. ARTEGINTZAREN GAURKOTASUNA

- Teknologia berrien eragina artearen zabalkundearen eta arte-sorkuntzan. Artearen eta masen kultura bisuala. Artearen merkaturak eta kontsumoak: finantzazioa, kritika eta zabalkundea. Ondare artistikoa, aberastasun kulturala den aldetik. Monumentuak eta arte-objektuak kontserbatu eta zaharberritzeko ardurak. Monumentuak. Artelanak museoan. Arte-museoak. Ibilbide historiko-artistiko-kulturalak

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	UNITATE DIDAKTIKOA						
	1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	3.1	3.2
1. Ebaluazioa							
2. Ebaluazioa							
3. Ebaluazioa							
SPS SAIOAK							

### 3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Orokorrean irizpide hauek jarraituko dira:

- Material guztia classroomen egongo da eskegita.
- Liburu digitala izango da euskarri nagusi. PPT aurkezpenak erabiliko dira saioak gidatzeko.
- Ikas teknikak menperatzea nahi da eta horregatik lanketa sistematizatu bat jarraituko da:
  - Gaiaren aurretik irakasleak aurkezpen bat egingo du.  
Gaia bukatzen denean, irakasleak gai osoa errepatatuko du, ideia nagusiak bilduz.
  - Ebaluaketan zehar obra-iruzkinak landuko ditugu. Ezingo dira USEko frogarako eskatzen diren iruzkin guztiak klasean egin eta neurtu. Trebakuntza hori maila pertsonalean egin beharko da.
  - Arlo teorikoa osatzeko ikus entzunezko materialak ere erabiliko dira.
- Kontroletan gai teorikoak landuko dira soilik.
- Ebaluazio bakoitzean planifikatutako gaiak sartuko dira azterketan eta bertan ikasleak gai bat garatzeko gaitasuna erakutsi beharko du, ikasgelan azaldutako ideia ezberdinak erlazionatuz. Azterketetan iruzkin bat ere egin beharko da.

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

- **JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK**

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak eta prozesuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

- **JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK**

Jakintzak eskuratzeko saioetatik eratorritako jakintzak aplikatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Jakintzak artelaren iruzkinen bidez jarriko dira praktikan batipat, ikasturtean zehar ezagutu behar idren lanen zerrenda baten arabera.

- **INTEGRAZIO JARDUERAK**

Taldea zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki aztertutako prozesu artistiko eta historikoen egungo munduaren konfigurazio eta ulermenerako planteatzen dituzten ekarpenak aztertuz.

## 4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeke eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira:

### AZTERKETAK

Azterketen bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Frogan ebaluatzen diren unitateei dagozkien prozesu artistiko eta historikoak eta lotutako problematika eta eraginak ezagutzen direla eta azalpen testu baten forman egoki adierazten jakitea baloratuko da, informazioa egoki egituratuz, lotura logikoak eginez eta beharrezko kontzeptu eta terminologia erabiliz.

Ebaluazio bakoitzeko azterketan, froga horrekin lotutako unitateei dagozkien lanen artean iruzkin bat ere sartuko da. Helburua da, Iturri historikoak srtistikoak, historiaren berreraikuntzarako ariketa gisa, bere prozesu historikoan kokatuz, testuinguru jakin baten parte moduan azalduz bere balioa aitortu eta gaur eguneko artearen errealitatearekiko loturak identifikatuz.

Bai azterketak zein iruzkinak, kalifikaziorako errubrika bana izan dezakete. Ondorioz, ikasleak bere azterketaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko aukera izango du.

### INTEGRAZIO JARDUERAK

Integrazio jardueren bitartez, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki aztertutako prozesu historikoen egungo munduaren konfigurazio eta ulermenerako planteatzen dituzten ekarpenak aztertuz. Unitateetako batzuk berariaz ebaluatuko dira integrazio jarduera hauen bidez.

Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkien ebaluazio-irizpideen deskribapena.

## GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
  - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
  - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Historiako ikasgaiari Historiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
  - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
  - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
  - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
  - a. Asistentzia: Ikasgaiari justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin behar da.
  - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
  - c. Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
  - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
  - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetzatza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

## 6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

**1 eta 2. HIRUHILEKOETAN** nota ondorengo moduan eraikiko da.

- ARLOKO KONPETENTZIAK (EDUKIAK)
  - Kontrola edo Integrazio jardura (%30)
  - Azterketa (%60)
- GELAKO JARDUNA (%10)

Berreskurapena: Edukien atala gainditu egin behar da ebaluazioa aprobatzeko (edukien atalean gutxienez 4,5) eta jarrerarekin batera 5era heldu behar da ikasgaiari gainditutzat emateko. Gainditu ezean, **EBALUAZIO OSOA** berreskuratu behar da ebaluazio bukaerako berreskurapen hitzorduan, azterketa bakar baten bitartez.

### **3. HIRUHILEKOAN** nota horrela eraikiko da:

- ARLOKO KONPETENTZIAK (EDUKIAK)
  - Kontrolak (%30)
  - Azterketa (%40)
- Talde lana edo integrazio-jarduera (%20) \* ohiko deialdian neurtuko da.
- Gelako jarduna (%10)

### **OHIKO DEIALDIA**

Ikasle guztiek azken talde lan edo integrazio jarduerarekin lotutako atal bat neurtuko dute ohiko deialdian.

Horrez gain, aurretik pendiente dauden ebaluazioak ere (hirugarren ebaluazioko edukiak barne) deialdi honetan berreskuratu behar dira. Ebaluazio OSOKO edukiak jasotzen dituen azterketa bat izango da formatua eta ebaluazio bakoitzeko edukien balio osoa ordezkatzeko du emaitzak, ateratako nota aurretik dagoena baino hobea bada.

\* Nota igotzeko aukera > Ikus beherago.

### **EZ-OHIKO DEIALDIA**

Ez-ohiko deialdian gainditu gabe geratu diren ebaluazioak berreskuratuko dira azterketa baten bitartez. Azterketa honek ebaluazioko edukien atalaren balio osoa ordezkatzeko du, ikasleak aurretik daukan nota baino altuagoa denean.

### **IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA**

Ikasturteko nota 3. hiruhileko batz-besteko aritmetikoaren kalkuluaren bitartez egingo da.

Ebaluazio guztiak gainditu behar dira batzbestekoa egiteko. Ez da ikasturtea gainditzat emango ebaluazioren bat gainditu gabe geratu baldin bada.

### **BERRESKURAPENAK**

- Hiruhilekoak osorik berreskuratzeko aukera egongo da gorago esandako baldintzetan. Berreskurapenak arratsaldez egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo.
- Hirugarren ebaluaketaren edukien berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.
- Ez ohiko deialdia izango da pendiente dauden ebaluazioak berreskuratzeko azken aukera.



## NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko hainbat aukera egongo dira ikasturtean zehar:

- Ebaluazio bakoitzean: Hautazko ariketak egongo dira ebaluazioko azterketetan txertatuta. Hautazko ariketa hauek, ebaluazioan zehar landutako edukiak integratzea eskatuko duten jarduerak izango dira. Ikasleak bere nota hobetzen joateko aukera izango du beste puntu bateraino.
- Ohiko deialdian: Hobetu nahi den ebaluazioa edo ikasturte osoa berriro eginez azterketa hitzorduan. Nota berriak ebaluazio horren edukien atala ordezkatzeko du aurrekoa baino hobea denean.
- Ez ohiko deialdian: Hobetu nahi den ebaluazioa berriro eginez azterketa hitzorduan. Nota berriak ebaluazio horren edukien atala (%90a) ordezkatzeko du aurrekoa baino hobea denean.

E AUKERA > NOTA IGOERAK						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohiko deialdian, ikasleak nahi duen ebaluazioko nota hobetzeko aukera izango du.</li> <li>• Ebaluazioak banaka egin daitezke edo, ikasturteko nota osoa hobetzeko azterketa global baten bitartez.</li> <li>• Azterketa horren pisua dagokion ebaluazioan edukien nota ordezkatzeko du edo azterketa globala den kasuan ikasturteko notaren %90 izanik (beti ere aurretik lortutakoa baino hobea bada).</li> </ul>						
1 EBALUAZIOA		2 EBALUAZIOA		3EBALUAZIOA		
IGOERA	JAR	IGOERA	JAR	IGOERA	I.J.	JAR
%90	%10	%90	%10	%70	%20	%10
E AZTERKETA GLOBALA (%90)						JAR %10
<b>IKASTURTEKO NOTA (ATALKA):</b> (1 ebal) + (2 ebal) + (3 ebal) / 3 <b>IKASTURTEKO NOTA (GLOBALA):</b> (E AZTERKETA) x 0,9 + JARRERA x 0,1						

## 7. HAZIAK > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA



Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz.... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzera bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daiteke.

Horretarako ikasleak, txantiloj/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.

Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.